

El j6ven Echegaray reside hoy en Santander, al amparo de uno de sus tios, corredor de aquella plaza comercial, y en dicho punto aparecen fechadas sus primeras composiciones po6ticas.

Las dos que hemos tenido el gusto de leer son las que llevan por titulo EGUZKIYAREN IRTEERA (*La salida del sol*) y MOGEL-TAR IZKRIBALARI BIKAÑEI OROIPENA, (*Recuerdo á los insignes escritores Moguel*), escrita la primera en correctos zortzicos mayores, y la segunda en ligeras y airosas seguidillas, metro poco usado hasta ahora por nuestros poetas y que sin embargo, se asimila f6cil y perfectamente á la 6ndole de nuestra lengua y las leyes de la m6trica bascongada.

Ambas composiciones son bell6simas, revelan en su j6ven autor excelentes condiciones, y á seguir por ese camino, creemos que el Sr. Echegaray ha de ocupar muy pronto uno de los primeros puestos entre los cultivadores de la poesia euskara. Siga, pues, adelante en sus tareas con el entusiasmo propio de sus pocos a6os, que 6 mucho nos equivocamos 6 sus producciones han de dar honra á la literatura euskara, que hoy m6s que nunca necesita del concurso de inteligencias j6venes que presten s6via y vigor al florecimiento felizmente iniciado de algunos a6os á esta parte.

En prueba de que no exajeramos en nuestros juicios, h6 aqu6 ahora la primera de las composiciones del Sr. Echegaray, que nos cabe la satisfaccion de dar á conocer:

## EGUZKIYA-REN IRTEERA.

Goiz aldea da; irten gaitean,  
Goazen mendiyen gañera,  
Ikusitzera zein ederra dan  
Eguzkiyaren irteera;  
Ikusitzera, al-dan ongiyen  
Gau illunaren bukaera,  
Bai eta ere, egun ederren  
Miragarrizko jayoera.

Zeruba urdiñ, odei bat gabe,  
Lauso arifña azpiyan,  
Landare danak lore-zabaltzen  
Baso ta charen erdiyan;

Zelayak intzez ongi busti-ta  
Mardul belarra mendiyen,  
Sortitza<sup>1</sup> dana deitzot dagola  
Chit alaitasun aundiyan.

Zillarra bezin piñ eta garbi  
Pizkorrak daude ibaiyak,  
Leyarrezkoak<sup>2</sup> diruditela  
Beren ur-eder biziyak ;  
Errekak eta iturrihoak,  
Aintzira<sup>3</sup> chiki t'aundi yak  
Eguzkiyaren irteerak dauzka  
Pozez beterik guztiyak.

(1) Sortitza, Naturaleza. —(2) Leyarra, Cristal.—(3) Aintzira, Lago.

Sarats-illunak<sup>1</sup> utzi dituzte  
 Beren betiko negarrak;  
 Aldamenean zut zukit daude  
 Zuriz jantzirik zumarrak;  
 Oen ondoren alchatzen dira  
 Liraiñ ta zuzen lizarrak;  
 Ditu guztiyak distiatutzen  
 Egun-sentiko izarrak.

Asitzen dira chori chikiak  
 Zugaztiyetan<sup>2</sup> kantatzen,  
 Soñu eztsitu chit pollitakin  
 Egun-sentiya agurtzen;  
 Ibar-zuloak, mendi-tontorrak  
 Dirade danak alaitzen;  
 Zergatik duten ezagututzen  
 Eguna dala argitzen.

Zoragarriko choriyen kanta  
 Añ gozatsuak entzunik,  
 Ichaso arro indartsua-re  
 Dago ekaitzak azturik;  
 Ondar-aldera biraltzen ditu  
 Baga-leunak<sup>3</sup> umillik  
 Gañean diyaz<sup>4</sup> azkar ontziyak  
 Ariñ aizeak bultzarik.

Uren azpitik azaldutzen da  
 Izar danetan nausiya,  
 Bere urrezko errañuekin  
 Lilluraturik<sup>5</sup> guztiya;  
 Apaingarriró jantzitzen ditu  
 Zeru mirari garbiya,  
 Ichaso aundi orrolariya  
 Eta lorezko zelaiya.

Aldendutzen da zakonetatik  
 Egun-sentiko lañoa,  
 Agerturikan argiz beterik  
 Arkaitz-arteko zuloa;

Zuaitzak daude garbiturikan  
 Intzez ederki ostoa;  
 Danak diote: «Egun sentiya,  
 Ederra zera, gozoa.

¡Zér gauz ederrak azaltzen diran  
 Mendiyetara igorik!  
 Nekazariyak irfetzen dira  
 Kantatzen beren echetik:  
 Soroetara lanera diyaz  
 Biyotza guziz pozturik,  
 Zergatik duten alde danetan  
 Ikusten poza goiturik.

Egun-argiyaz agertutzen da  
 Ikusgarriya mundua:  
 Ezagutzen da bazter danetan  
 Egillearen eskua;  
 Egaztichoak esaten dute:  
 «Jaso zazute burua  
 Miretsitzeko, begiraturik  
 An goian dagon Zerua.»

Gauza guztiyak bedeinkatutzen  
 Dute eguzki berriya,  
 Oro bat bere errañu eder  
 Indarti eta biziya,  
 Esanik dala Jaunak guretzat  
 Biraltzen duen argiya,  
 Zeruetara bear degula  
 Alchatu bere gloriya.

Umill gaitezen, bada, gizonak  
 Egillearen aurrean;  
 Doaindu<sup>6</sup> zagun Zeruko Jauna  
 Belaunturikan lurrean;  
 Jachi gaitezen erriyetara  
 Zabaldutzeko danetan,  
 Egun-sentiya zer atsegiñak  
 Sartzen dituen guregan.

ECHEGAKAY-KO KARMELO-K.

Santander-en Azilla-ren 10.an 1882.an

(1) *Sarats-illunak*, Los tristes sauces.—(2) *Zugaztiya*, Arboleda.—(3) *Baga-leunak*, Las suaves olas.—(4) *Diyaz* por *dijoaz*; variedad dialectal propia de Zumaya y otros pueblos de la costa. (N. de la R.)—(5) *Lilluratu*, Deslumbrar.—(6) *Doaindu*, Alabar.